



2. DOKUMENTUA

LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA GIDALIBURUAK EGITEKO ETA EKIMENAK GARATZEKO, ESTRATEGIAKO ETA SANEAMENDUKO USTIAPENEKO ZUZENDARIORDETZAKO DOKUMENTU-SISTEMA HOBETZEKO ETA MANTENTZEKO

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-instalazioen jarduketa-gidaliburuak egin eta eguneratzeko laguntza teknikoa ematea, bai eta hainbat laguntza-lan egitea ere Ekimenak Garatzeko, Estrategiako eta Saneamendu Ustiapeneko Zuzendariordetzako dokumentu-sistema hobetzeko eta mantentzeko.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DEFINIZIOA

2.1. IRISMENA

Adjudikaziodunak lan hauek egingo ditu:

1. Saneamenduko gidaliburuak eguneratzea (prozedurak eta jarraibide teknikoak), eta gidaliburu berriak egitea.
2. Dokumentu-sistemaren mantentzea.
3. Txostenak, azterketak eta proiektuak.

Lanak aldi berean egin ahal izango dira; are, 2.2 atalean deskribatutako lanak aldi berean egingo dira.

2.2. LANEN DESKRIBAPENA

2.2.1.1. GIDALIBURUAK EGUNERATZEA ETA GIDALIBURU BERRIAK LANTZEA (1. LANA)

Saneamendu Ustiapeneko Zuzendariordetzak zenbait gidaliburu ditu, prozedura eta jarraibide teknikoen inguruan garatuak, instalazioak nola erabili eta instalazioekin lotutako arloak nola kudeatu azaltzeko.

Gidaliburu gehien-gehienak dagoeneko zaharkituta geratu dira; adibidez, erreferentzia okerrak edo osatu gabeak dituzte, eta, ondorioz, berrikusi eta eguneratu egin behar dira. Era berean, instalazio eta jarduketa berrien gaineko gidaliburuak ere egin behar dira.

Gidaliburu bakoitza saneamenduko arlo jakin bati buruzkoa da, eta, ondorioz, bai gidaliburuak eguneratzean bai gidaliburu berriak egitean, dagokion arloak izendatutako pertsonak eta kontratuaren arduradunak hartuko dute parte solaskide gisa, zertarako eta ezarritako formatuen eta indizeen estandarrak betetzen direla zaintzeko.



1.1 ataza: Gidaliburuak eguneratzea

Atazaren hasieran bilera bat egingo da, eta, bertan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ordezkariak eta esleipendunak gidaliburuak berrikusiko dute elkarrekin, egin beharreko aldaketak zehazteko. Behin aldaketak eginda, adjudikaziodunak gidaliburuak bidaliko die Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ordezkariak, egindako lana berrikusi eta egin beharreko aldaketak egin diren edo zuzenketa gehiago beharrezkoak diren baloratu dezaten; azken kasu horretan, dokumentua berriro aldatu eta bidaliko da, ezarritako entrega-epearen barruan betiere.

Ataza hau, gidaliburuak entregatzeko epeei eta zenbateko ekonomikoei dagokienez, azken dokumentuaren orrialde-kopuruaren arabera banatuko da:

- 1.1.1. 50 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea
- 1.1.2. 51 eta 100 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea
- 1.1.3. 101 eta 150 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea
- 1.1.4. 150 orrialde baino gehiagoko gidaliburuak eguneratzea

1.2 ataza: Gidaliburu berriak

Atazaren hasieran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta adjudikaziodunaren arteko bilera bat egingo da. Bilera horretan, egin beharreko gidaliburuaren gaineko azalpenak emango dira, gidaliburuak egiteko behar den dokumentazioa zehaztuko da, dagokion instalaziora bisitaren bat egitea egokia den aztertuko da... Behin dokumentazioa bidali eta bisita egin ondoren (behar izanez gero), adjudikaziodunak gidaliburuak egin eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ordezkariak bidaliko die, egindako lana berrikusi eta egin beharreko aldaketak egin diren edo zuzenketa gehiago beharrezkoak diren baloratu dezaten; azken kasu horretan, dokumentua berriro aldatu eta bidaliko da, ezarritako entrega-epearen barruan betiere.

Ataza hau, gidaliburuak entregatzeko epeei eta zenbateko ekonomikoei dagokienez, azken dokumentuaren orrialde-kopuruaren arabera banatuko da:

- 1.2.1. 50 orrialde bitarteko gidaliburu berriak
- 1.2.2. 51 eta 100 orrialde bitarteko gidaliburu berriak
- 1.2.3. 101 eta 150 orrialde bitarteko gidaliburu berriak
- 1.2.4. 150 orrialde baino gehiagoko gidaliburu berriak

2.2.2. DOKUMENTU-SISTEMAREN MANTENTZEA (2. LANA)

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak produktuen bizi-zikloa kudeatzeko programa bat du: Windchill PLM. Saneamendu Ustiapeneko Zuzendariordetzak Windchill PLM programaren Liburutegiaren bidez kudeatu nahi dituen zenbait dokumentu ditu identifikatuta.

Bada, 2. lan honen helburua identifikatutako dokumentazioa Windchill PLM programan kargatzea da. Dokumentaziok jarraian definituko diren zenbait ataza ditu esleituta. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, 2. lan hau hasi aurretik, adjudikaziodunak izendatutako pertsonari prestakuntza eskainiko dio, Windchill PLM programan trebatu dadin Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estandarrak aintzat hartuta.



Entrega-epeei eta zenbateko ekonomikoei dagokienez, gehienez ere 500 dokumentuko sortak hartuko dira kontuan, formatu desberdinetako artxiboetan (word, excel, power-point, pdf eta beste). Aldi bakoitzean dokumentu-sorta batekin lan egingo da; hau da, hurrengo dokumentu-sorta kudeatzen hasi aurretik, ondoren deskribatutako 2.1, 2.2 eta 2.3 atazak amaituko dira.

2.1 ataza: Garbiketa eta inbentarioa

Dokumentuak motaren eta azpimotaren arabera biltzea eta ordenatzea, eta dokumentazio guztiaren inbentario bat egitea kalkulu-orri batean.

2.2 ataza: Informazioa aurreprozesatzea

Egindako inbentariotik abiatuta, kargari lotutako atributu guztiak definitu behar dira (dokumentuen metadatuak). Lana egiten hasi aurretik jasotako prestakuntzan, atributuak zehazteko irizpideak anbiguotasunik gabe definituko dira. Ataza hau oso garrantzitsua da dokumentazio-kargaren automatizazioa errazteko.

2.3 ataza: Informazioa kargatzea

Dokumentazioa Windchill PLM programan kargatzean datza, lotutako atributu eta guzti. Aurretik egindako kalkulu-orriak lana errazten du, aukera ematen baitu nahitaezko atributu komunak partekatzen dituzten dokumentuak taldekatzeko, bai eta datu gutxiago eskuz txertatzea eskatzen duten karga masiboak egitekoa ere.

2.2.3. AZTERLANAK, TXOSTENAK ETA PROIEKTUAK (3. LANA)

Txostenak eta azterketa tekniko-ekonomikoak biltzen dira 3. lan honetan, zehazki, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren datu-baseetara egindako kontsultetatik lortzen diren eta dagokion azterketa egiteko eraldatu egin behar diren datu gordinak oinarri dituztenak.

Halaber, 3. lan honetan sartzen dira alternatiben azterketak, prozesuko instalazioen aldaketak, ezarpen berriak eta esleipenaren aurrekontua 40.000 eurotik beherakoa den tamaina txikiko proiektuak.

3.1 ataza: Azterketa eta txosten tekniko-ekonomikoak

Ataza honen barruan sartzen dira saneamendu-prozesuekin lotutako azterketa eta txosten teknikoak eta/edo ekonomikoak. Laguntza teknikoaren barruan kalkulu-orri bat egitea sartzen da, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aplikazioen datu gordinetatik abiatuta. Kasu honetan, datu-iturri ugari erabiltzen dira, kalkulu-orri bakar batean bateratu behar direnak ondoren aztertu ahal izateko. Zeregin hori betetzeko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aplikazioetatik datuak ateratzeaz gain, kontratuaren arduradunaren bitartekaritza ere beharko da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren beste zuzendariordetza batzuetatik beharrezko informazioa lortzeko. Ataza hau



aurrera eramateko, adjudikaziodunak pertsona espezifiko bat izendatu beharko du, eta pertsona horrek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren sarera VPN konexioa duen ordenagailu eramangarri bat izango du, plegu honen 3.3.1 apartatua ezartzen den bezala.

3. lan hau egiten hasi aurretik, lana egiteko izendatutako pertsonari prestakuntza emango zaio erabili behar dituen aplikazioak eta aurredefinitutako kalkulu-orriak nola erabili ikas dezan.

3. lan hau, kalkulu-orriak entregatzeko epeei eta zenbateko ekonomikoei dagokienez, kalkulu-orrian konbinatu beharreko datu gordinak lortzen diren aplikazio kopuruaren arabera banatzen da:

- 3.3.1. Azterketan erabilitako datuak 1-3 aplikaziotik lortzen diren kasuak
- 3.3.2. Azterketan erabilitako datuak 4-6 aplikaziotik lortzen diren kasuak
- 3.3.3. Azterketan erabilitako datuak 6 aplikazio edo gehiagotik lortzen diren kasuak

3.2 ataza: Azterketak idaztea

Helburua hobekuntza-azterketa zehatzak egitea da, aintzat hartuta dauden aukerak, obra zibilean edo prozesuko instalazioetako ekipoetan aldaketak egitearen bideragarritasuna edo prozesuan ezarpen berriak egitearen bideragarritasuna.

3.3 ataza: Azterketak idaztea

Aurreko azterketetan edo bestelako beharretan jatorria duten proiektuak idaztea –prozesuko instalazioekin lotuta daudenak eta kontratuaren aurrekontua 40.000 eurotik beherakoa den proiektuak–. Proiektuek honako hauek izango dituzte:

- Memoria eta eranskinak
- Aurrekontua
- Planoak

2.3. EXEKUZIO-EPEA

Kontratuaren xede den laguntza teknikoko zerbitzua emateko aurreikusitako epea bi urtekoa da, urtebeteko bi luzapenekin.

Lan bakoitza entregatzeko epea lan bakoitzaren irismenaren arabera da, hau da, lan espezifikoaren eta aurreikusitako atazen arabera definitzen da. Entrega-epeak lanok egiteko behar den denbora baino luzeagoak dira.



2.3.1. GIDALIBURUAK EGUNERATZEA ETA GIDALIBURU BERRIAK LANTZEA (1. LANA)

ATAZAK		EPEA
1.1 ataza: Gidaliburuak eguneratzea	1.1.1. 50 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea	Hilabete
	1.1.2. 51 eta 100 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea	Hilabete
	1.1.3. 101 eta 150 orrialde bitarteko gidaliburuak eguneratzea	Hilabete eta erdi
	1.1.4. 150 orrialde baino gehiagoko gidaliburuak eguneratzea	Hilabete eta erdi
1.2 ataza: Gidaliburu berriak	1.2.1. 50 orrialde bitarteko gidaliburu berriak	Bi hilabete
	1.2.2. 51 eta 100 orrialde bitarteko gidaliburu berriak	Bi hilabete
	1.2.3. 101 eta 150 orrialde bitarteko gidaliburu berriak	Bi hilabete eta erdi
	1.2.4. 150 orrialde baino gehiagoko gidaliburu berriak	Bi hilabete eta erdi

2.3.2.2. DOKUMENTU-SISTEMAREN MANTENTZEA (2. LANA)

ATAZAK	EPEA
2.1 ataza: Garbiketa eta inbentarioa	Hiru aste
2.2 ataza: Informazioa aurreprozesatzea	Hiru aste
2.3 ataza: Informazioa kargatzea	Hilabete eta erdi

2.3.3. TXOSTENAK, AZTERKETAK ETA PROIEKTUAK (3. LANA)

ATAZAK		EPEA
3.1 ataza: Azterketa eta txosten tekniko-ekonomikoak	2.3.1. Azterketan erabilitako datuak 1-3 aplikaziotik lortzen diren kasuak	Astebete
	2.3.2. Azterketan erabilitako datuak 4-6 aplikaziotik lortzen diren kasuak	Bi aste
	2.3.3. Azterketan erabilitako datuak 6 aplikazio edo gehiagotik lortzen diren kasuak	Hiru aste
3.2 ataza: Azterketak idaztea		Hilabete eta erdi
3.3 ataza: Azterketak idaztea		Bi hilabete



3. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

3.1. GIZA BALIABIDEAK

Adjudikaziodunak ordezkari bat izan beharko du, kontratuarekin lotutako espezialitate batean goi-mailako titulazio tekniko eta bost urtetik gorako esperientzia dituen; ordezkaria adjudikaziodunaren plantillan integratuta egongo da eta Kontratuaren Zuzendaritzaren aurrean lanen solaskide eta arduradun nagusia izango da.

Era berean, adjudikaziodunak tituludunak eta egin beharreko lanen alderdi teknikoetan espezializatutako profesionalak izan beharko ditu plantillan, agiri honetan xedatutakoaren arabera. Agiri honetan deskribatutako lanen zati bat lizitatzailarena ez den enpresa batek egiten badu, lankidetzakonpromisoa aurkeztu beharko du eskaintzan.

Funtsezko betebeharra da eskaintzan adierazitako langileak mantentzea kontratuak irauten duen bitartean. Hasierako eskaintzan aurkeztutako teknikariren bat aldatu behar izanez gero, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari jakinarazi beharko zaio, eta eskaintzan eskatutako dokumentazio bera aurkeztu beharko da; dokumentazio hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartu beharko du. Laguntza teknikoaren koordinatzailearen ekimenez egiten den edozein ordezkaren kontratuaren arduradunak berrikusi beharko du alde aurretik, sartzen den pertsonak agiri honetako eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko baita.

3.2. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeak, arauak eta erregelamenduak oso-osorik beteko dituzte une oro.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jardura propioak ez ezik, azpikontratutako enpresenak ere bai.

Kontratuari lotutako prebentzio-jardura guztiak ENPRESA-JARDUERAK KOORDINATZEKO BERARIAZKO PROZEDURAK (PE-SST-10COOR) arautuko ditu; eranskin gisa erantsi da.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuek baliozkotu beharko dute prebentzio-jardura guztia.
Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

3.3. BALIABIDE TEKNIKOAK

3.3.1. EKIPO INFORMATIKOAK

Adjudikaziodunak bulegoko ekipamendu tekniko eta material propioak, etengabe eta eskusiboki eduki beharko ditu kontratua hasten denetik bertatik.

Kontratu honen xede den zerbitzua behar bezala emateko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren zerbitzarietarako konexio segurua egon beharko da, partekatutako direktorioetara sartzeko.



Lanak urrunetik egiteko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak proiektuaren adjudikaziodunaren esku jarriko du bere VPN konexio-azpiegitura. Azpiegitura horri esker, enpresek Internet bidezko konexio segurua ezarriko dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, eta zerbitzua emateko behar diren barne-baliabideak eskuratu ahalko dituzte.

VPN konexioa behar duten lanak egiteko (3. lana), adjudikaziodunak Interneterako konexioa duen ordenagailu eramangarri bat jarriko du kontratuaren eskura. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren zerbitzu informatikoek zehaztuko dituzte bai ordenagailu eramangarriaren zehaztapenak bai beharrezko konfigurazioa.

Bestalde, adjudikaziodunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren sarera sartu beharrik ez duten gainerako lanak egiteko beharrezkoak diren ekipoak eta softwarea izan beharko ditu bere instalazioetan, adibidez Autocad (edo beste DWG editore bat), Office eta beste.

3.3.2.BESTE BALIABIDE MATERIAL BATZUK

Lantaldeko kideek Interneterako etengabeko konexioa duten telefono mugikorrak (smartphoneak) izango dituzte, baita wifi sarrerik ez dagoenean ere, zertarako eta lanaldian zehar Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko langileekin une oro konektatuta eta lokalizatzeko moduan egoteko.

Bestalde, adjudikaziodunak lantaldearen esku jarriko ditu Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-instalazioetara joan-etorriak egin ahal izateko beharrezko baliabideak (normalean, Galindo eta Lamiarango hondakin-uren araztegietara) .

Halaber, adjudikaziodunak egin beharreko jarduera garatzeko behar dituzten norbera babesteko ekipoak eman beharko dizkiete beren teknikariei.

Baliabide guztien kostua (ekipo informatikoak eta beste baliabide material batzuk), zeharkako kostutzat hartuko da eta lizitazio-prezioetan jasota egon beharko da.

4. LANAK NEURTZEA ETA ORDAINTZEA

4.1. KONTRATUAREN PREZIOAK

Prezioen tauletan adierazitako unitateak gutxi gorabeherakoak dira; ondorioz, aukera izango da gauzatutako unitateak benetako beharren arabera aldatzeko, horrek inolako aldaketarik eragingo ez badu ere kontratuko gainerako baldintzetan.

4.2. LAN-ORDUTEGIA

Zerbitzua Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lanorduetan garatuko da.



4.3. BAIMENAK, BAJAK ETA OPORRAK

Adjudikaziodunak kontratuko lanetan arituko den lantalde iraunkor bat izatea bermatu beharko du; gainera, hasierako lantaldean gertatzen diren bajen, baimenen edo oporren ondoriozko ordezkapenak agiri honetan eta adjudikaziodunaren eskeintzan adierazitako prestakuntza eta esperientzia bera edo handiagoa duten teknikariek egin beharko dituzte, lanen jarraitutasuna bermatzeko. Adjudikaziodunaren kontura izango da lantaldea osatzea.

4.4. EGINDAKO LANEN BALORAZIOA ETA ORDAINKETA

Adjudikaziodunak egindako lanen balorazioa eta ordainketa hileroko ziurtagirien bidez egingo da, eta adjudikaziodunak finkatutako prezio unitarioak aplikatuko zaizkie Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatuta egin diren lan mota guztiei.

Aholkulariaren ordezkariak egindako lanaren balorazioa ezin izango zaio egotzi agiri honen xede den kontratuari; horrenbestez, adjudikaziodunaren prezio unitario bakoitzean sartutako gastu orokorren barnean dagoela ulertuko da.

Lanen balorazioa honela egingo da:

Egiten diren lanak egiaztatu ahal izateko, aldez aurretik zehaztuko dira lan bakoitzaren definizioa eta norainokoa, eta dagokion enkargu-orria ere egingo da. Hala, lanak egiaztatzeke, enkargu-orria eta hileroko egindako lanaren ehunekoa alderatuko dira —neurketa egiteko kontratu honetarako indarrean dauden prezioen taulan zehaztutako eta benetan exekutututako unitateak hartuko dira—. Enkargu-orriak definituko du lanen irismena, bai eta dokumentuaren xede diren entregagaiak lortzeko eskura jarritako bitartekoak ere.

5. INGURUMENA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Ingurumen Arauak aplikatu eta nahitaez bete behar dira. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren webgunean daude eskuragarri arauok:

<http://proveedores.consortiodeaguas.com/Web/Inicio/index.aspx>

Sestao, 2025eko maiatza

Kontratuaren arduraduna,

Izpta.: Eider Salazar Telleria.

